# PASAIAKO ERAIKINEN FATXADAK HOBETZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK BERRIZ ARGITARATZEA.

Pasaiako eraikinen fatxadak hobetzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak 2010eko urtarrilaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (1. zenbakian) argitaratu dira. Testuan zenbait akats dagoela ohartu gara; eta, beraz, oinarri horiek berriz argitaratzea egokia iruditu zaigu, banan-banan zuzentzea baino eraginkorragoa delakoan; are gehiago, kontuan hartuta hartzaileak herritarrak direla. Beraz, testu hau argitaratzean aipatutako aldizkarian argitaratutako testu osoa baliogabetzen da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 105.2. artikuluan xedatzen denarekin bat; izan ere, artikulu horren arabera, akats materialak edozein unetan zuzendu daitezke.

Hortaz, herritarrak jakinaren gainean egon daitezen argitaratuko dira Pasaiako eraikinen fatxadak hobetzeko diru-laguntzetarako oinarri arautzaileak, guztiak ere diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikuluak dioena betez. Oinarri arautzaile hauek Pasaiako Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak onartu ditu 2009ko abenduaren 18an.

## PASAIAKO ERAIKINEN FATXADAK HOBETZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

Generoa dela-eta inor ez diskriminatzearren, gaztelerako testuan genero femeninoa erabiliko da pertsonei buruz ari garela: herritarrak, bizilagunak, erabiltzaileak, eskatzaileak, titularrak edo beste edozein izen, eta horiekin batera doazen adjektiboak.

# NUEVA PUBLICACIÓN DE LAS BASES REGULADORAS DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA MEJORAR LAS FACHADAS DE LOS EDIFICIOS DE PASAIA

Han sido publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 1, de 4 de enero de 2010, las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para mejorar las fachadas de los edificios de Pasaia. Advertidos varios errores en apartados diversos de su texto, procede publicar de nuevo dichas bases, por considerarlo más clarificador y operativo que corregirlos uno por uno, máxime teniendo en cuenta que es la ciudadanía en su conjunto la destinataria de aquellas. En consecuencia, la publicación del presente texto invalida en su totalidad el texto publicado en el Boletín mencionado, en virtud de lo dispuesto en el art. 105.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que permite la rectificación, en cualquier momento, de los errores materiales.

Así, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 9.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publican, para general conocimiento, las Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para mejorar las fachadas de los edificios de Pasaia. Las presentes bases reguladoras han sido aprobadas por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Pasaia el 18 de diciembre de 2009.

## BASES REGULADORAS DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA MEJORAR LAS FACHADAS DE LOS EDIFICIOS DE PASAIA

Con el objetivo de no discriminar a ninguna persona por cuestión de género en la utilización del lenguaje, en la versión en castellano se atenderá a la utilización del género femenino para referirnos a las personas, ya sean ciudadanas, vecinas, usuarias, solicitantes, titulares o cualquier otro sustantivo o adjetivo que los acompañe.

## ARRAZOIEN AZALPENA

Pasaiako Udalaren nahia udalerriko fatxadetan hobekuntzak egiteko ahaleginak egitea denez, eta udalak aurrekontuko kontusail bat izendatu duenez fatxadak hobetzeko ekimenak diruz laguntzeko, behar-beharrezkoa da diru-laguntzak emateko modua arautzea.

Zehazki, lan hauek lagunduko dira diruz: bide publikora ematen duten eraikinen fatxadak hobetzeko lanak, eta zehatz-mehatz, hirigintzako araudira egokitzea helburu duten fatxadetako obrak, arlo horri dagokion udal-araudia betez. Araudi honetako artikuluetako aurreikuspenak betetzen dituzten jarduketa guztiak diruz laguntzea da udalaren asmoa, eta, horregatik, ez du zentzurik konkurrentziazko prozedura arautzea. Diru-laguntzak, beraz, zuzenean emango dira.

Deialdi publikorik izango ez denez, interesdunek diru-laguntzak aurrekontuko ekitaldi osoan eskatuko dituzte. Eskaera oinarri hauetan ezarritako baldintzetara egokitzen bada, diru-laguntza izapidetzeari ekingo zaio.

*1. artikulua. Helburua.*

Pasaiako Udalak fatxadak berritzeko, birgaitzeko eta konpontzeko ematen dituen diru-laguntzak arautzea da oinarri hauen helburua.

Fatxadak erabat zaharberritzekoak, birgaitzekoak eta konpontzekoak direnean emango dira diru-laguntzak, baldin eta aurkezten den proiektuak fatxadaren baldintza estetikoak bateratzen dituelako aurreikuspenak jasotzen baditu, Pasaiako udalerrian indarrean dagoen plangintzara egokituta.

Esku-hartzeek eraikinaren fatxada nagusiei eragingo diete. Ez dira diruz lagunduko barrualdeko patioetarako jarduketak edo etxadi-patio pribatuetarako jarduketak. Ez dira ezta diruz lagunduko fatxadetako elementu puntual batzuetan egin beharreko jarduketak ere, non eta fatxada osoak konpondu, birgaitu eta zaharberritzen ez diren.

Era berean, ez dira diruz lagunduko egungo araudia betetzearren denboran atzera gelditzen

## EXPOSICION DE MOTIVOS

Siendo objetivo del Ayuntamiento de Pasaia impulsar la mejora de las fachadas en el municipio, y habiendo dotado para ello una partida presupuestaria destinada a subvencionar estas iniciativas, resulta necesario regular el modo en el que se otorgarán dichas subvenciones.

Se subvenciona la consecución de un resultado: la mejora de las fachadas del edificio que den a la vía pública, y más concretamente, las obras que tengan por objeto la adecuación de la misma a la normativa urbanística, de acuerdo a la ordenanza municipal relativa a ese aspecto. La intención municipal es subvencionar todas las actuaciones que cumplan con lo previsto en el articulado de la presente normativa, por lo que carece de sentido regular procedimiento concurrencial ninguno. Las subvenciones se otorgarán, en consecuencia, de manera directa.

A falta de convocatoria pública, las interesa das solicitarán las subvenciones a lo largo de todo el ejercicio presupuestario. Una vez comprobado que la solicitud se adecua a los requisitos establecidos en estas bases, se procederá a conceder la ayuda.

*Artículo 1. Objeto*

Es objeto de estas bases regular las subvenciones que el Ayuntamiento de Pasaia concede para restaurar, rehabilitar y reparar fachadas.

Las actuaciones concretas a subvencionar son las de restauración, rehabilitación o reparación completa de fachadas en las que el proyecto presentado prevea la uniformización de las condiciones estéticas de la fachada, adecuándose al Planeamiento vigente en el municipio de Pasaia.

Las intervenciones deberán incidir sobre el conjunto de las fachadas principales del edificio. No serán objeto de subvención las actuaciones sobre fachadas a patios interiores o de manzana privados, ni la actuación sobre elementos puntuales de las fachadas sino las que contemplen la reparación, rehabilitación o restauración del conjunto.

Tampoco serán objeto de subvención las actuaciones cuya adecuación compositiva de las

diren fatxadak egokitzeko jarduketak.

Ez dira inolaz ere diruz lagunduko hirigintzako legezkotasuna berrezartzeko jarduketak, ez eta egikaritze-aginduak emandakoak ere.

Kasu guzti-guztietan diru-laguntzetatik kanpo geldituko dira obra-proiektuen kostuak eta obretako zuzendaritza fakultatiboen kostuak.

Diruz lagunduko dira udal-lizentzia emanda duten jarduketak, betiere, lizentzia hori diru-laguntzak emateko aurrekontuaren berariazko kontusaila onartzen den urtearen aurrekoan emanda badago edo urte berean emanda badago. Aipatutako aurrekontu-ekitaldietan baino lehenago lizentzia eskuratu duten jarduketak ez dira diruz lagunduko.

Diruz lagun daitekeen jarduketa egiteko obra-lizentziaren eskaerarekin batera eskatu ahal izango da diru-laguntza. Eskaera horrela egiten denean, obra-lizentziaren ebazpenarekin batera emango da diru-laguntza eskaeraren ebazpena. Eskaeren lehentasun-ordenaren kalkulua egiteko, kontuan izango da interesdunak dagokion obra-lizentziaren eskaera noiz egin duen.

*2. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura.*

Diru-laguntzak zuzenean emango dira, interesdunak eskaera egin, eta eskaeran oinarri hauetan aurreikusten diren baldintzak betetzen direla ziurtatzen dela.

*3. artikulua.- Finantza-baliabideak.*

Berariazko oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzak ezartzeko baliabideak Pasaiako Udalaren urteroko aurrekontuetan agertzen dira.

Kontusaila agortzen denean bukatuko dira diru-laguntzak, harik eta izendapen berri bat egiten den arte. Kreditu-agortzea udalaren iragarkitaulan eta web-orrian argitaratuko da (www.pasaia.net).

*4. artikulua. Onuradunen betebeharrak.*

Jarduketa egitea proposatzen den eraikinaren jabetza izango du diru-laguntza honen onuradunak, eta pertsona fisiko edo juridikoa izango da. Jabetza horizontalaren araubidepean dauden eraikinen kasuetan, etxejabe-elkarteek euren or-

fachadas quede retrasada en el tiempo en aplicación de la Normativa vigente.

En ningún caso serán subvencionables las actuaciones de restitución de la legalidad urbanística ni las órdenes de ejecución.

En todos los casos quedan excluidos de la subvención el coste de los proyectos de obra y las direcciones facultativas de las mismas.

Serán subvencionables las actuaciones a ejecutar que dispongan de licencia municipal otorgada tanto en el año anterior como en el mismo en el que se apruebe la partida presupuestaria correspondiente para la concesión de las subvenciones. No se subvencionarán actuaciones cuya licencia fue obtenida en ejercicios presupuestarios anteriores a los mencionados.

Se podrá solicitar la subvención junto con la solicitud de licencia de obra para la ejecución de la actuación subvencionable. En este caso, junto con la licencia de obra se resolverá la solicitud de la subvención. Para calcular el orden de prelación de las solicitudes, se tendrá en cuenta el momento en el que la interesada ha solicitado la licencia de obra correspondiente.

*Artículo 2. Procedimiento de concesión de las subvenciones*

Las subvenciones se concederán de forma directa, previa solicitud de la interesada en la que se acredite el cumplimiento de los requisitos previstos en estas bases.

*Artículo 3. Recursos financieros*

Los recursos previstos para aplicación de las subvenciones reguladas en estas bases específicas serán los que figuren en los presupuestos anuales del Ayuntamiento de Pasaia.

Una vez agotada dicha partida, se paralizarán las subvenciones hasta nueva consignación. El agotamiento del crédito se publicará en el tablón de anuncios y página web del Ayuntamiento (www.pasaia.net).

*Artículo 4. Requisitos de las personas beneficiarias*

Las personas beneficiarias de esta subvención serán las personas físicas o jurídicas propietarias del inmueble sobre el que se propone la actuación. En caso de edificios en régimen de propiedad horizontal, las comunidades de propietarias

dezkarien bidez jardungo dute. Deialdi honetan onuradun izateko berariazko baldintza hauek bete behar dira:

1. Jarduketa egitea proposatzen den eraikina Pasaiako udalerrian egongo da.
2. Onuradun izatekoak diren etxejabe-elkarteek ez dute zorrik izango Pasaiako Udalarekin edo haren mendeko erakundeekin.
3. Era berean, jarduketa egiteko diru-laguntza eskatuta, hura egin ondoren, ez dira eraikinean hirigintza-antolamenduarekin edo –plangintzarekin bat ez datozen elementuak geldituko.

*5. artikulua. Onuradunen betebeharrak.*

Diru-laguntza eskaeretan bete beharrekoak diren ohikoez gain, onuradunek ondorengoa bete behar dute: lanak lizentzian ezartzen diren baldintzak eta epeak betez egingo dira, eta obra-lizentzian ezartzen diren epeak betez bukatuko dira. Onuradunek diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute, baldin eta obra-lizentzian ezarritako epean lanak hasi ez badira.

Hala eta guztiz ere, indarrean dagoen araudia betez, bidezko luzapenaren eskaera egin ahal izango da, behar bezala arrazoituz gero.

*6. Artikulua. Diru-laguntzen izapidea.*

Araudi honetako diru-laguntzetara biltzeko, interesdunek Pasaiako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera, horretarako berariazko eredua betez. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

1. Etxejabe-elkartearen IFZren zenbakia.

2. Obra-lizentziaren eskaera: obra-lizentzia aurretik eskatua izan bada eta ebazpena aldekoa izan bada, nahikoa da eskaeran hori agertzearekin.

3. Etxejabe-elkartearen akta. Akta horretan jasoko da zaharberritzeko, birgaitzeko edo konpontzeko lanen adostasuna, eta etxejabe-elkarteak administrariari edo lehendakariari ahalmena eman izana etxejabe-elkartearen

actuarán a través de quien ostente debidamente la representación de la misma. Los requisitos específicos de la convocatoria para reunir la condición de beneficiaria son los siguientes:

1. El inmueble objeto de la actuación debe encontrarse en el municipio de Pasaia.
2. Las comunidades beneficiarias no tendrán deudas pendientes con el Ayuntamiento de Pasaia o los organismos de éste dependientes.
3. Asimismo no deberán quedar en el edificio elementos fuera de ordenación o disconformes con el planeamiento, una vez finalizada la actuación objeto de subvención.

*Artículo 5. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

Es obligación de las personas beneficiarias, además de las genéricas que deben cumplir las beneficiarias de cualquier tipo de subvención, la siguiente: las obras habrán de realizarse con arreglo a las condiciones y los plazos que se marquen en la licencia, debiendo estar terminadas conforme a los plazos indicados en la licencia de obras. Las personas beneficiarias perderán su derecho a percibir la subvención si en el plazo establecido en la licencia de obras las mismas no se han iniciado.

No obstante, y en aplicación de la normativa vigente, se podrá solicitar justificadamente la prórroga oportuna.

*Artículo 6. Tramitación de las subvenciones.*

Para acogerse a las subvenciones previstas en esta normativa, las interesadas deberán presentar la correspondiente solicitud, según el modelo previsto, con la siguiente documentación:

1. Número de N.I.F. de la comunidad de propietarias.

2. Solicitud de licencia de obras. De haberse concedido aquella con anterioridad, bastará con mencionar dicha circunstancia en la solicitud.

3. Acta de la Comunidad acordando la restauración, rehabilitación o reparación de la fachada y facultando a la administradora o presidenta para representar a la comunidad, realizar el

izenean jarduteko, dagokion diru-laguntza kobratzeko eta haren jaso-agiria bidaltzeko.

4. Memoria deskribatzailea, hasierako osaera-rekin alderatuta, fatxadan egitekoak diren aldaketak jasotzen dituena.
5. Etxejabe-elkartearen kontuaren zenbakia, diru-laguntzaren ordainketa egiteko.
6. Idatzia Pasaiako Udalari ahalmena ematen zaiola agertzeko. Zehazki, ahalmen horren bidez, Udalak zuzenean eskuratu ahal izango du eskatzaileak zerga-bidezko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitatuta dituela agertzen duen ziurtagiria (eredua udalak emango du).

Aipatutako eskaera erregistratzeko Pasaiako Udaletxeko Erregistro Orokorrean egin daiteke edo bestela azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan izendatzen diren beste zeinahi erregistrotan edo bide telematikoz, baina azken aukera hau baliatu ahal izango da Pasaiako Udalak horretarako behar diren tresna informatikoak abian jartzen dituenean, hartara bide elektronikoz idatziak modu sinesgarrian jasotzeko.

*7. artikulua. Jardunbidea bideratzea eta ebaztea.*

Ebazpena eman aurretik, proiektuaren gainean aldaketak eman izan balira, hauei buruzko dokumentu grafikoak aurkeztu behar dira.

Era berean, lanak amaitu ondoren, aurkeztu beharrekoak dira obra-amaieraren ziurtagiria, teknikari zuzendariak sinatua; edo, lanak egin dituenaren obra-amaieraren adierazpena, teknikari zuzendariaren esku-hartzea beharrezkoa izan ez denetan. Bi kasuetan azken faktura edo likidazioa aurkeztu behar da, diruz laguntzen diren jarduketen froga gisa.

Aipatutako dokumentuak osatu eta, Alkatetzak dekretu bidez emango ditu diru-laguntzei buruzko ebazpenak, Hirigintza Saileko teknikariak egindako proposamena aztertuta, eta hala behar izanez gero, egin beharreko txostenak aztertuta.

Diru-laguntzak emateko dekretuak ezarriko

cobro de la subvención correspondiente y emitir recibo de la misma.

4. Memoria descriptiva que recoja las modificaciones a realizar en la misma respecto de su configuración inicial.
5. Nº de cuenta de la comunidad para realizar el pago de la ayuda.
6. Escrito en el que se faculte al Ayuntamiento de Pasaia para obtener de forma directa la acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social por parte de la Comunidad solicitante (el modelo será facilitado por el Ayuntamiento).

Dicha solicitud podrá ser registrada tento en el Registro General del Ayuntamiento de Pasaia como en cualquier otro registro de los enumerados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o por vía telemática, si bien esta última posibilidad sólo podrá ser ejercitada a partir del momento en que el Ayuntamiento de Pasaia haya puesto en marcha los dispositivos informáticos necesarios para la recepción fehaciente de escritos por medios electrónicos.

*Artículo 7. Instrucción y resolución del procedimiento.*

Finalizadas las obras, en caso de que se hubieran producido modificaciones sobre el proyecto inicial, deberá aportarse documentación gráfica en la que se reflejen las mismas.

Asimismo, se presentará el certificado de fin de obra suscrito por la técnico directora de las mismas o, en caso de que no haya sido preceptiva su intervención, mediante la declaración de fin de obra de quien la haya ejecutado, en ambos casos acompañado de la factura o liquidación final, que servirá de justificación de las actuaciones subvencionadas.

Una vez completada la documentación mencionada, la concesión de las subvenciones se resolverá mediante decreto de Alcaldía, a la vista de la propuesta realizada por la Técnico del Departamento de Urbanismo y previos, en su caso, los informes pertinentes.

El decreto de concesión de las subvenciones

du diru-laguntzaren zenbatekoa.

*8. artikulua.- Diru-laguntzen ordainketa.*

Indarrean dagoen udal-araudian zehazten diren epeak betez ordainduko da diru-laguntza.

*9. artikulua. Argitara ematea.*

Urteko hiruhilekoen hurrengo hilabeteetan emango dira argitara Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian emandako diru-laguntzak.

*10. artikulua. Diru-laguntzen gehienezko zenbatekoak.*

Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko kontuan hartuko dira: batetik, eraikinaren interes arkitektonikoa; eta, bestetik, hirigintzako araudira egokitzeko egin beharreko ahalegin ekonomikoa.

Hirigune Historikoetako interes arkitektonikoa zehazteko, kontuan hartuko dira Hirigune Historikoak Berritzeko Planean ezarritako katalogazio-mailak.

Ahalegin ekonomikoa neurtzeko lan osagarrien kostua hartuko da kontuan, zehazki, fatxadaren osaera hirigintzako indarreko araudira egokitzeko egin behar diren lan osagarriena; esaterako: fatxadaren osaera, instalazioak jartzea, bat ez datozen elementuak kentzea...

Obra egitetik sortzen diren udal-tasa eta udalzergen %25etik %100era bitartekoa izango da proposatzen den diru-laguntza.

*Xedapen Iragankorra*

Diruz lagundu ahal izango dira, eta 2009ko aurrekontuari atxikiko zaizkio 2008ko urtean bukatutako lanak, lizentziaren data kontutan hartu gabe.

establecerá la cuantía de la subvención.

*Artículo 8. Abono de las subvenciones.*

El abono de la subvención otorgada se realizará en los plazos establecidos en la normativa municipal en vigor.

*Artículo 9. Publicidad*

Durante el mes siguiente a cada trimestre natural se publicarán en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento las subvenciones concedidas.

*Artículo 10. Cuantías máximas de las subvenciones*

Para determinar la cuantía de la subvención se tendrá en cuenta el interés arquitectónico del edificio y el esfuerzo económico requerido para la adecuación a la normativa urbanística.

Para determinar el interés arquitectónico en el caso de los Cascos Históricos se tendrán en consideración los niveles de catalogación que se establecen en el Plan Especial de Rehabilitación de los Cascos Históricos.

Para valorar el esfuerzo económico se tomará en consideración la cuantía de las obras complementarias a realizar para la adecuación de la composición de las fachadas a la normativa urbanística vigente en cuanto a composición de las mismas, integración de instalaciones, eliminación de elementos disconformes, etc.

La subvención que se proponga podrá variar entre el 25% y el 100% de las tasas e impuestos municipales que se devenguen como consecuencia de la obra.

*Disposición Transitoria*

Podrán ser objeto de subvención con cargo al presupuesto del año 2.009 las obras finalizadas durante el año 2.008, con independencia de la fecha de obtención de la licencia.

**Pasaia, 2010eko urtarrilaren 7an.**

**PASAIAKO ALKATEA**
**Maider Ziganda**